

ZARAUZKO UDALA
EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA
2018-2022

Zarautzen, 2018ko azaroaren 5ean

Aurkibidea

I-SARRERA

II-DIAGNOSTIKOA

EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

1. Biztanleria eta hitzunen bilakaera
2. Euskara gaitasuna
3. Kale erabilera
4. Familia transmisioa
5. Irakaskuntza
6. Euskalduntzea eta alfabetatzea
7. Arlo sozioekonomikoa (merkataritza, ostalaritza...)
8. Udalaren baliabideak: aurrekontua

BESTE EKARPEN BATZUK

1. Zarauzko euskaltzaleen topagunearen ekarpenak
2. Zarauzko Hegoalde eremuaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa
3. D ereduko Kirola

III-ONDORIO NAGUSIAK ETA LEHENTASUNEZKO ARLOAK

IV-PLAN ESTRATEGIKOA

1. Familia bidezko transmisioa
2. Irakaskuntza
3. Euskalduntze alfabetatzea
4. Administrazioa
5. Gune geografiko euskaldunenak
6. Arlo sozioekonomikoa
7. Aisia eta Kirola
8. Liburugintza
9. Kulturgintza
10. Publizitatea
11. Corpus, plangintza eta euskararen kalitatea
12. Hedabideak
13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
15. Barruko proiektzioa
16. Kanpo proiektzioa

Zarauzko Udalak 2014ko abenduaren 17an onartu zuen "Zarauzko Udalerrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2015-2017". Planaren indarraldia amaitu da eta euskararen erabileraren normalizaziorako VI. plangintzaldian gaude: 2018-2022 plangintzaldia, hain zuzen ere.

Zarauzko Udalak, beraz, bost urteetarako planak (2018-2022) onartu behar ditu, bai Udal barruko Euskararen Erabilera Plana, bai Udalerrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana ere.

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN bitartez, Zarauzko Udalak, datozen urteotan, euskararen normalkuntzaren bidean ezarriko dituen lehentasunak, helburuak eta egitasmoak zehaztuko ditu.

Plan honek hiru atal nagusi izango ditu:

Diagnostikoa, ondorio nagusiak eta lehentasunak, eta Plan Estrategikoa bera.

- **Diagnostikoa** egiteko orduan 2011ko V. Mapa Soziolinguistikoa eta 2016ko Inkesta Soziolinguistikoa izan dira datu-iturri nagusiak. UDALGIDAKO datuak ere erabili ditugu. Datu horiez gain, Udalak berak dituenak ere erabili ditugu: udalerriko errolda datuak, inmigrazioari buruzkoak, eskolatzeko datuak, eta Udalak egindako 2016ko kale erabilera neurketen datuak bereziki. Egoera soziodemografikoa, hizkuntza gaitasuna, lehen hizkuntza, etxeko hizkuntza eta kale erabilera izan dira aztertutako arloak. Bestalde, hainbat azterketa eta parte-hartze prozesutatik lortutako informazioa ere aztertu dugu (Hegoaldeko ELE, Zarauzko Euskaltzaleen Topagunearen parte-hartze prozesua eta D ereduko Kirolari buruzko azterketa).
- Ondorio nagusiak eta lehentasuneko arloak: Aurreko atalean egindako irakurketaren ondorioak dira. Datuek erakutsiko digute zertan eragin behar dugun, eta lehentasuneko arloak identifikatzera eramango gaituzte.
- Hirugarren atala plana bera izango da, hots, **EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN 2018-2022 epealdirako, PLAN ESTRATEGIKOA**. 16 eragin-esparru izango ditu planak. Udalak datozen urteetan 16 esparru horietan aurrera eramango dituen ekintzak zerrendatuko dira, beti ere adostutako lehentasunetan oinarrituta.
 1. Familia bidezko transmisioa
 2. Irakaskuntza
 3. Euskalduntze alfabetatzea
 4. Administrazioa
 5. Gune geografiko euskaldunenak
 6. Arlo sozioekonomikoa
 7. Aisia eta kirola
 8. Liburugintza
 9. Kulturgintza
 10. Publizitatea
 11. Corpus, plangintza eta euskararen kalitatea
 12. Hedabideak
 13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
 14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
 15. Barruko proiektzioa

16. Kanpo proiektzioa

Udalak 16 esparru horietan aurrera eramango dituen ekintzak urtez urteko kudeaketa planetan jasoko dira.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartzeko prozedura ondorengoa izango da:

Herritarren Arloko Informazio Batzordeko kideei aurkeztuko zaie lan bileran, ondoren jendaurrean jarriko da, herritarren ekarpenak jaso ahal izateko. Ekarpenak jaso ondoren Herritarren Informazio Batzordean aurkeztuko da irizpena emateko eta azkenik Udalbatzak Osoko Bilkuran onartuko du.

II-DIAGNOSTIKOA

ZARAUZKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA


Zarauzko egoera soziolinguistikoaren diagnostikoa egiteko atal hauetan oinarritu gara:

1. Biztanleria eta hiztunen bilakaera
2. Euskara gaitasuna
3. Kale erabilera
4. Familia transmisioa
5. Irakaskuntza
6. Euskalduntzea eta alfabetatzea
7. Arlo sozioekonomikoa (merkataritza, ostalaritza...).
8. Udalaren baliabideak: aurrekontua.

1. Biztanleria eta hiztunen bilakaera

Zarautz biztanleria irabazten ari da, eta hiztunak ere bai.

<i>Taula 1</i>	<i>1991</i>	<i>1996</i>	<i>2001</i>	<i>2006</i>	<i>2011</i>	<i>2016</i>
<i>Zarautz</i>	18.007	19.202	20.568	22.031	22.583	23.040
<i>Urola kostaldea</i>	63.162	64.173	66.199	69.010	72.930	75.391
<i>Gipuzkoa</i>	676.488	676.208	672.434	686.292	702.897	710.699
<i>EAE</i>	2.104.041	2.098.055	2.079.210	2.115.383	2.174.033	2.171.886



5.033 biztanle gehiago 25 urtetan, %27,95eko hazkundera izan du gure herriak. Urola kostaldeak berriz, 12.229 biztanle irabazi ditu, %19,36ko hazkundera, hain zuzen ere.

Aitzitik, Gipuzkoak eta EAEk gorakada txikiak izan dituzte, Gipuzkoak %5,05ekoa eta EAEk % 3,22ekoa.

Gaur egunera baldin bagatoz, 2018ko urriaren 15ean Zarautzen erroldatutako biztanleak 23.445 dira, hazkundera ez da beraz gelditu, nahiz jaiotze kopuruak behera egin duen. Ikus azken 10 urteetan jaiotze eta erroldatu den haur kopurua:

2. taula / urtea	JAIOTZAK	urtea	JAIOTZAK
2008	231	2013	187
2009	242	2014	145
2010	223	2015	159
2011	195	2016	194
2012	229	2017	179

Adin taldeari erreparatuz gero, hiztun gehien dituen adin tartea 20-64 urte bitartekoa da, baina azken urteotan pisua galtzen ari da, eta 64tik gorako taldea hazten. Gizartearen zahartze prozesua ere nabari da Zarautzen.

3. taula /ZARAUTZ	2001	%	2006	%	2011	%	2016	%
0-19	4.333	21,07	4.632	21,02	4.728	20,94	4.670	20,27
20-64	13.258	64,46	14.211	64,5	14.162	62,71	13.929	60,46
>64	2.977	14,47	3.188	14,47	3.693	16,35	4.441	19,28

Biztanleriaren jatorria ezagutzea ere interesgarria da:

	2012	%	2013	%	2014	%	2015	%	2016	%	2017	%
Araba	128	0,57	126	0,56	130	0,57	134	0,58	139	0,6	144	0,62
Bizkaia	701	3,11	706	3,11	729	3,2	730	3,19	737	3,2	744	3,23

Gipuzkoa	17491	77,57	17632	77,69	17814	78,08	17931	78,25	17972	78	17961	77,89
Beste lurraldeak	2482	11,01	2463	10,85	2431	10,66	2412	10,53	2423	10,52	2403	10,42
Atzerria	1746	7,74	1768	7,79	1710	7,5	1708	7,45	1769	7,68	1806	7,83
Guztira	22548		22695		22814		22915		23040		23058	

Esanguratsua da jatorriz gipuzkoarrak direnak urtez urte %78aren bueltan dabiltzala. Horrek aldeko egoera eragiten du euskara gaitasunarentzat.


2. Euskara gaitasuna

EUSTATEko datuen arabera Zarauzko elebidunen kopuruak azken 35 urteetan gora egin du. Biztanleriak gora egin du eta euskaldunen kopuruak ere bai.

Gaur egun zarauztarren 3 laurdenak euskaldunak gairela esan genezake, eta beste %10ek euskara ulertzen dutela. Beraz, Zarautzen euskara erabiltzeko aukerak handiak dira hala egin nahi duenarentzat, euskara ulertzen ez dutenak biztanleriaren %14,89 besterik ez direlako.

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
-EUSKALDUNAK	63,81	68,17	70,11	72,17	71,41	70,12	70,03	74,14
-IA-EUSKALDUNAK	13,85	13,83	14,04	14,18	14,96	16,73	17,01	10,97
-ERDALDUNAK	22,34	17,99	15,85	13,65	13,63	13,15	12,97	14,89

Euskara gaitasuna adinaren arabera (2011ko datuak)



2011n euskaldunen portzentaia %70,03koa zen eta 2-14 eta 15-34 urte bitartekoena 20 eta 7 puntu gehiagokoa, hurrenez hurren. 2016ko euskaldunen portzentaia %74,14koa bada, pentsa daiteke adin tarte horietan ere euskaldunen portzentaia handiagoa izango dela.

3.- Kale erabilera

Ezagutza goraka badoa ere, Zarauzko kale erabileraren bilakaera mantendu egin dela esan genezake. Soziolinguistika klusterrak 2011 eta 2016an egindako kale erabileraren neurketaren emaitza orokorretan ikus daiteke:


	2011	2016
KALE ERABILERA	50	50,5

Adin taldeei begiratzen badiegu, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta gazteak ondoren. Eta ez da aldaketa handirik izan 5 urteotan, haurren erabilera bi puntu igo da, beste adin taldeetan berdintsu mantendu da.

ADIN TALDEEN ARABERA	2011	2016
Haurrak (2-14)	68,5	70,5
Gazteak (15-24)	53,5	54,6
Helduak (25-64)	41,8	41,7
Adinekoak (64tik gora)	37,9	37,3

Gaitasuna adin-taldeekin gurutzatzen badugu, gazteen arteko erabilera nahiko baxua dela esango genuke.


Haurren arteko erabilera altua da, espero zitekeen bezala. Eta aipatzekoa da baita ere, haurrekin izandako elkarrizketetan nagusien erabilerak ere gora egiten duela nabarmen. Horrela ikusten da 2016ko kale neurketak emandako datuetan:



Haurrak bakarrik, nagusirik gabe daudenean, % 72,5 da euskarazko erabilera. Nagusiak bakarrik daudenean %35,5koa da euskararen erabilera, eta haurrak eta nagusiak nahasian daudenean %66,5koa.

Beraz, haurrek nagusien erabilera baldintzatzen dute, euskararen alde.

Eta auzoka ere desberdintasun nabariak daude.



Neurketak 2016ko iraila eta urria bitartean egin ziren, asteazken arratsaldetan eta larunbat goiz eta arratsaldetan (Asteazkena: 18:00-20:00, Larunbata: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00). Jakin badakigu, asteburuetan malekoi inguruan bisitari asko ibiltzen direla, normala da, orduan, erabilera baxuagoa izatea. **Malekoi ingurua kontuan izan gabe Zarauzko kale erabileraren neurketa % 57,6koa izango litzateke.**

4. Familia transmisioa

Ez daukagu 2016ko daturik, eta aurreko urteetakoei begiratu behar.

Lehen hizkuntza euskara duten zarauztarrak erdia baino ez dira. 20 puntuko aldea dago lehen hizkuntza dutenen eta euskaldunak direnen artean.

Eskolak euskaldundu ditu herritar horiek. Izan ere, beherago ikusiko dugun bezala, D eredia erabat nagusi da gure herrian azken urteetan.

Euskara bigarren hizkuntza izateak etxeko hizkuntza eta kale erabilera baldintzatzen ditu, noski. Hizkuntzarekiko atxikimendua, erabiltzeko erraztasuna, berehalakotasuna, hizkuntza bizia... bigarren hizkuntzan zailagoa da hori guztia.

	1991	2001	2011	2016
EZAGUTZA	70,1	71,4	70	74,14
LEHEN HIZKUNTZA	62,9	60	55,2	-
ETXEKO HIZKUNTZA	48,4	48,5	40,5	-

5. Irakaskuntza

4.721 ikasle daude Zarautzen, haurreskolatik hasi eta Batxilergoa eta Lanbide Heziketako goi zikloetaraino.

IKASLE KOPURUA					
	GUZTIRA	D EREDUAN		B EREDUAN	
HAURRESKOLA	106	106		-	
HAUR HEZKUNTZA	868	868		-	
LEHEN HEZKUNTZA	1.491	1.455		36	
DBH	1.217	1.204		13	
GUZTIRA	3.682	3.633	%98,66	49	%1,33

16 urte bitarteko ikasleak 3682 dira, eta bigarren hezkuntzakoak 1039. 16 urte bitarteko irakaskuntza erabat D ereduan eskaintzen da Salbatore Mitxelena, La Salle, Orokieta eta Antoniano ikastetxeetan. Kontatuak dira B ereduan eskolatutako haurrak. Kanpotik etorritako haurrak izaten dira, eta euskara indartze ikastaroak jasotzen dituzte.

Batxilergoan ere D eredua da nagusi, bai Lizardi Institutuan, baita Oteitzan ere.

IKASLE KOPURUA					
	GUZTIRA	D EREDUAN		B EREDUAN	
BATXILERGOA	502	500	%99,6	2	%0,4

Lanbide Heziketan egoera desberdina da. Kontuan izan behar dugu hiru ikastetxek eskaintzen dutela Lanbide Heziketa, eta Zarautzik kanpoko ikasle ugari etortzen direla; aurrekoetan ez bezala. Aurreko mailetan herriko edo eskualdeko ikasleak baitira.

IKASLE KOPURUA							
	GUZTIRA	D EREDUAN		B EREDUAN		A EREDUAN	
LANBIDE HEZIKETA	537	343	%63,873	29	% 5,40	165	%30,72

Oteitzan D ereduan egiten dira ikasketak. Monte Albertian A, B eta D ereduetan eta AIALA sukaldaritza eskolan A ereduan.

Beraz, irakaskuntzaren gaur egungo egoera erabat euskararen aldekoa da, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoko ikastereduei begiratzen badiegu. Lanbide Heziketan ere D eredua da nagusi, baina A

IKASLE KOPURUA					
	GUZTIRA	D EREDUAN		B EREDUAN	
HAURRESKOLA	106	106		-	
HAUR HEZKUNTZA	868	868		-	
LEHEN HEZKUNTZA	1491	1455		36	
DBH	1217	1204		13	
GUZTIRA	3682	3633	%98,66	49	%1,33

ereduak
ere

presentzia handia duela aitortu behar da. Urteetako lan honek hainbat eta hainbat herritar euskalduntzea ahalbidetu du.

Baina ez da beti horrela izan: 80ko hamarkadarekin alderatzen badugu, D ereduaren nagusitzea erabatekoa izan da Zarautzen.

	A	B	D	X
2018	%3,5	%1,6	%94,9	-
2011	% 9,1	%1,7	%89,2	-
1983	% 41,9	%19,37	%37,69	%1,04

Eskolak euskaldundu dituen zarautzarrak guraso dira dagoeneko. Guraso horien etxeko hizkuntza euskara izan dadin lortzea erronka handia da.

6. Euskalduntzea eta alfabetatzea

Zarautz udalerrri euskalduna izan arren, euskaltegiako matrikula kopurua mantendu egiten da azken ikasturteetan. Herrian bi euskaltegi daude, eta eskaintza benetan zabala da.

UDAL EUSKALTEGIA	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017	2017-2018	2018-2019
IKASLE KOPURUA	299	322	359	272	248	228
EUSKALDUNTZE TALDEAK	4+AISAko 2	4+ AISAko 2	2+ AISAko 2	3+ AISAko 1	4+ AISAko 1	3+ AISAko 1
ALFABETATZE TALDEAK	4 +udaleko 10	5	5+udaleko 5	5+udaleko 1	5+udaleko 1	5+udaleko 1
AUTOIKASKUNTZA	163	171	186	168	137	121

AEK EUSKALTEGIA	2015-2016	2016-2017	2017-2018*	2018-2019
IKASLE KOPURUA	49	59	48	32
EUSKALDUNTZE TALDEAK	3	3	3	1
ALFABETATZE TALDEAK	2	3	2	1

- AISA ikastaroa ere antolatzen da azken urteetan, kanpotik etorri berri diren herritarrentzat.

Ikasturtea	Ikasturtea hasi	amaitu
2011-2012	14	10
2012-2013	15	5
2013-2014	17	13
	17	8
2014-2015	17	11
	14	9
2015-2016	13	8
2016-2017	11	7
2017-2018	13	12

- **MINTZALAGUN** egitasmoa Udala Elkarrekin antolatzen du eskualde guztirako.

2009an abian jarritako egitasmoa da Mintzalaguna. Hasieratik bertatik AEKren bidez kudeatu da, Urola kostako udalerrietan.

2017-2018 ikasturtean 22 talde eta 91 lagun aritu dira eskualdean.

Zarautzen 14 talde ibili dira, 59 lagun, guztira.

2018-2019 ikasturtea ere abian da dagoeneko.

7. Arlo sozioekonomikoa (merkataritza, enpresak)

Zarautz eskualde burua da, zerbitzu emailea, turistikoki erakargarria... Zerbitzu sektoreak garrantzi handia du gure udalerrian.


Sektore ekonomikoetan okupatutako biztanleriaren ehunekoa:

	1996	2001	2006	2010	2011	2015	2016
Nekazaritza eta arrantza	2,41	2,07	1,09	0,75	0,88	1,43	1,02
Industria	35,67	33,89	29,35	24,63	22,71	22,20	22,42
Eraikuntza	7,36	8,48	8,40	8,09	6,83	5,16	5,18
Zerbitzuak	54,56	55,57	61,15	66,52	69,59	71,21	71,39

Honen garrantzia ikusita, Urola Kostako Udal Elkarteak "Euskara eskura, enpresa txikietan" egitasmoa jarri du abian. Eta UEMAren baitan Turismoko lantaldea ere osatu da.

Turismoa 3. sektorearen motore dela esan genezake, ostalaritza eta merkataritza establezimenduak ugari direlako bai udalerrian bai eskualdean ere.

Horregatik Turismoaren Plan Estrategikoan hizkuntzaren gaia ere kontuan hartzea garrantzitsua izan da, sektoreari euskara ere gure marka izan daitekeela ikustarazteko.



2006 eta 2016 urteen bitartean jaso ditugun bisitari gehienak Kataluniatik datoz. Baina Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoatik datozenak gehitzen baditugu, 51.328 dira.

Iparraldetik ere bisitari ugari etortzen dira.

Valentziatik datorren turismoa ere aipagarria da eta, gainera, hazten ari da azken urteotan.

Beraz, bisitari asko eremu elebidunetatik datoz.

8.- Udalaren baliabideak: Euskararen aurrekontua, diru-laguntzak eta euskara sustatzeko ekintzak

Udalak euskarari zenbateko aurrekontua ematen dion ikusiko dugu:

AURREKONTUA	2018	Udalarekiko %
Euskara arloko aurrekontua Euskara departamentua 430.753,67 Udal euskaltegia 653.424,01	1.084.177,68 €	3,01
Euskara Sustatzeko Ekintza Plana Euskara departamentua + Udal Euskaltegia + beste departamentuek sustatutako ekintzak	1.532.983,00 €	4,26
Udalaren aurrekontua	35.984.958,12 €	100

Udalak euskara sustatzeko ematen dituen diru-laguntzak:

DIRU-LAGUNTZA LERROA	XEDEA	URTEKO KOSTOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Euskararen esparruko pertsona edo elkarteei urtean zehar hainbat programa eta jarduera egiteko, diru-laguntzak norgehiagoka araubidez ematea	Herriko talde eta elkartek urtean zehar euskara sustatzeko jarduerak antolatzea	5.000,00 €	Norgehiagoka
Establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzak norgehiagoka araubidez ematea	Udalerriko establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak	2.000,00 €	Norgehiagoka
Establezimenduetako irudi korporatiboak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzak norgehiagoka araubidez ematea	Herriko establezimenduetako irudi korporatiboak euskaraz jartzeko	2.000,00 €	Norgehiagoka
Euskaraz jartzen diren web orriengatik diru-laguntzak norgehiagoka araubidez ematea	Herriko establezimendu eta entitateek web orriak euskaraz jartzeko	2.000,00 €	Norgehiagoka
Euskara ikasi dutenei eta UEUko ikastaroak egin dituztenei diru-laguntzak ematea	Euskara ikasteko erraztasun ekonomikoak ematea.	36.000,00 €	Norgehiagoka
Herriko hedabideei diru-laguntza Urola Kostako Hitza	Euskarazko hedabideak diruz laguntzea	39.000,00 €	Izenduna

Herriko hedabideei diru-laguntza	Euskarazko hedabideak diruz laguntzea	38.000,00 €	Izenduna
Erlo telebista			
Euskaltzaleen Topaguneari diru-laguntza	Euskaraldia antolatzeke diru-laguntza	24.261,01	Izenduna
Euskaraz Koop. Elkarteari diru-laguntza (2 urtetik behin)	Korrika kulturala antolatzeke	3.600,00	Izenduna

Gaur egun, Zarauzko Udalak antolatzen dituen jarduera eta egitasmoak, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren helburuak betetzen dituztenak, eragin esparruetan banatuta:

1. FAMILIA TRANSMISIOA

- Haur jaioberrien gurasoentzako sentiberatze kanpainak
- Kantu-jira Euskararen Egunean

2. IRAKASKUNTZA

- Eskolaz kanpoko hizkuntza-errefortzua: LH eta DBHko ikasleentzat
- Soziolinguistika ikastaroak DBH4ko ikasleentzat
- Gu ere bertotan
- Mitxelena Saria
- Ipuin kontalariak ikastetxeetan
- Euskararen Egunekeo egitasmoak
- Ikaslagunak

3. EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZEA

- Euskara ikasteko beka
- Jubilatutaldea euskaltegian
- Mintzalaguna (Udal Elkartea)
- AISA eta harrera ikastaroa
- Trebakuntza saioak udal langileentzat

4. ADMINISTRAZIOA

- Udalaren Erabilera Plana

5. GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNENAK

Zarauzko Udala UEMAko kide da 2013tik.

Gaur egun UEMA lurguneeuskaledunetako 82 udalerrik osatzen dute. UEMAko udalerrietan biztanleen %70ak baino gehiagok daki euskaraz. Herritarrek arlo guztietan euskaraz bizitzea posible izateko lan egiten du mankomunitateak. Euskara nagusi den lurgunea erabat euskalduntzeaz gain, lurguneeuskaleduna zabaltzea bultzatu nahi du UEMAK.

Euskara Departamentuko teknikariek bi lan-taldetan hartzen dute parte: **turismoari** buruzko lan-taldean eta **diskurtsoari** buruzkoan.

6. ARLO SOZIO-EKONOMIKOA
 - Errotuluak euskaratzeko diru-laguntzak
 - Irudi korporatiboa euskaratzeko diru-laguntzak
 - Itzulpen eta zuzenketa zerbitzua establezimenduentzat
 - Euskara Eskura egitasmoa (Udal Elkartetik)
 - EUSKAI sariak
 - BAI EUSKARARI ziurtagiria
 - Euskararen balio erantsia indartzea (dendarientzako kanpaina)

7. AISIA ETA KIROLA
 - Ludoteka
 - Udaleku Irekiak
 - Hitzarmena Haur Kultur Taldearekin
 - Mintzodromoa (AEKri ematen zaion diru-laguntzaren bidez)
 - Korrika
 - Gaztelekua eta Gaztelekuko jarduerak
 - Diru-laguntza gazte elkarteei (euskarazko jarduerak)
 - Diru-laguntza gazteen kultur sormena laguntzeko (euskaraz)
 - Gazteentzako emanaldiak (euskaraz)
 - Kalerki
 - Ikastaroak Gaztelekuko hezitzaileentzat
 - Eskola-kirola euskaraz
 - Diru-laguntza bertso-eskolei: MOTXIAN eta ETXEBELTZ
 - ...

8. LIBURUGINTZA
 - Irakurle Taldea
 - Liburuaren Eguna
 - Lizardi saria

9. KULTURGINTZA
 - Haurrentzako antzerki emanaldiak
 - Haurrentzako tailerrak eta ekitaldiak
 - Irakurketa Txokoa: gurasoak ere ipuin-kontalari
 - Zarautz Kantuan
 - Xabier Lizardi Saria
 - Salvatore Mitxelena Saria
 - Bertsolari Gazteen Txapelketa (Euskal Jaiak)
 - Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa
 - Literaturia
 - Euskal Astea
 - ...

10. PUBLIZITATEA
 - Publizitate instituzionala euskarazko hedabideetan
 - Publizitate turistikoa hizkuntzari buruzko aipamenak lantzea

11. CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA
 - Zarauzko Idazleak.com
 - Ahotsak
12. HEDABIDEAK
 - HITZA eta ERLOri diru-laguntza izendunak
13. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK
 - Zarautz bloga eta web guneak
 - Diru-laguntza web guneak euskalduntzeko
14. SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA
 - Aniztasunean Bizi (Inmigrazioa)
 - EUSKARAREN EGUNA
 - UEMAKo Berripapera
 - Errenta Aitorpena
 - Bai Euskarari Ziurtagiriak
 - Euskai sariak
 - Korrika
 - Euskaraldia
 - Kale Erabileraren neurketa
15. BARRUKO PROIEKZIOA
 - Hitzarmena UEMArekin
 - Hitzarmena Kontseiluarekin
 - “Gipuzkoako estrategiak” taldean parte hartzea. Udaltop, Udalekin...

BESTE EKARPEN BATZUK

1.- Zarauzko euskaltzaleen topagunearen ekarpenak

Zarauzko Udalak eta Euskararen Aholku Batzordeak Zarauzko euskalgintza aktibatzeke beharra ikusita, 3 saioko prozesu parte hartzaile bat jarri zuten martxan 2017ko udazkenean, 2 helburu nagusirekin: euskaltzaleak aktibatu eta antolatzea, eta denon artean Zarauzko euskararen erabileraren inguruan hausnarketa partekatu bat egitea, etorkizuna irudikatu eta ekintza zehatzak lantzeko.

Horiek horrela, Euskaltzaleen Topagunearen bidez antolatu ziren saioetan 40-45 bat herritar elkartu ziren urriko eta azaroko 3 larunbat goizetan. Zarauzko euskararen diagnosi partekatua egin zen saioetan eta hutsuneak eta hobetzeak atzeman ziren.

Gauzak horrela, euskararen erabileran eragitea izan zen lehentasunetan lehentasunena, horren ondoren ostalaritza eta merkataritza eragitea eta hirugarrenik euskarazko kultur eskaintza sustatu eta berritzea.

Lehentasunezko esparruen lanketa horretatik, 3 lantalde eratu ziren:

- Euskarak 365 ekimena lantzeko taldea, gero EUSKARALDIKO talde motorra bihurtuko zena.
- Euskarazko kultur eskaintza indartu eta berritzeko taldea: Euskal Jaien inguruko proposamen konkretua landu eta udalari aurkeztu zioten.
- Ostalaritza-merkataritza. Ez zuen aurrerabiderik egin.

Esan beharrik ez dago, parte-hartze saio hauetan lortu zen emaitza bat datorrela gorago egindako diagnostikoaren ondorioekin.

2.- Zarauzko Hegoalde eremuaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa:

Maite Agirrebeñak, Goizane Aranaren tutoretzapean, egindako txosten honen helburua Zarauzko “16. Hegoalde” eremuari dagokion Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) egitea da. Hau da, Zarauzko hego ekialdean kokatuta dagoen 131.838m²tako eremuan 1.200 etxebizitza eta dagozkion ekipamendu, zerbitzu eta espazio libreak eraikitzeak Zarauzko udalerraren egoera soziolinguistikoan izango lukeen eragina neurtzea.

Azterketa sakona bada ere, ondorioetara joango gara zuzenean:

- Emaitzak aztertuz, badirudi Zarautzek kanpotik datozen biztanle ez euskaldunak asimilatze gaitasuna baduela, 1991ko urtetik horrela izan da eta. Azken 20 urteetan (1991-2011) euskara ezagutza %70ean mantendu da udalerriko biztanleria 4.363 igo den arren”
- “Bide honetan, “16. HEGOALDE” eremuan espero diren biztanle berrien datuak jaso ondoren eta udalaren asimilazioarekin alderatuz, badirudi proiektu honek eragin gutxi izango duela Zarauzko euskara ezagutzan. Hala ere, ezin dugu ahaztu euskaldunen ehunekoa 70etik jaisteko arriskua aurreikusten dela eta horrek udalerraren arnagune izaera galtzera eramango lukeela”
- “... kontuan hartu beharreko bi puntu azaldu dira ez horren positiboak: tokiko euskararen ezagutza eta tokiko euskararen erabilera. Lehenengoaren kasuan proiektuaren eragina ertaina izango dela aterata da eta bigarrengoan handia. Beraz, bereziki erreparatu behar diogu erabileraren alderdiari, oso sentisiblerik delako eta honen jaitzierak izugarri eragiten baitio euskararen biziraupenari.”

Berriz ere ezagutza eta erabileraren arteko jauzia ageri zaigu.

3.- D ereduko Kirola:

Jaime Altuna eta Iñigo Beitia ikertzaileek “D ereduko kirola” izeneko egitasmoan kirola eta euskarari buruzko ikerketa egin zuten 2016an Soziolinguistika Klusterraren eskaeraz. Hizkuntza praktikei buruzko azterketa honetan antropologian ohikoak diren teknikak erabili zituzten lau kirol taldetan: Zarauzko Kirol Elkarte (eskubaloia), Zaramaga Pilota elkarte (esku-pilota), Getxo Aixerrota taldea (boleibol) eta Real Sociedad (futbola). Hona hemen ikerketan jasotako ideia batzuk:

- “Zarauzko eskubaloi taldeko entrenatzaile eta gazte guztiek euskaraz egiteko gaitasuna dute. (...) Zarauzko kaleetan egin den azken kale neurketan elkarrizketen erdia gaztelaniaz jaso baziren (baita gazteen artean ere), gure behaketan ez dugu, apenas, gaztelaniazko elkarrizketarik entzun”.
- “Zarauzko entrenatzaile guztiak euskaraz aritzen dira. Euren jarduna osoa euskaraz da eta ez dute inolako unean hizkuntza aldatzen.”

- “Zarauzko jokalarien jarduna ia erabat euskaraz da. Entrenamendua hasi aurretik eta amaitzerakoan jaso ditugun gazteen arteko elkarrizketa informalak euskaraz ziren. Beroketa ariketak egiten dituzten bitartean ere... euskaraz aritzen dira. Entrenamenduetan antolatzen diren jolas eta bestelako ariketetan euskaraz komunikatzen dira entrenatzailearekin eta euren artean ere bai”.
- “Zarautzen ikusi dugunaren arabera jokalaria hizkuntza-mudantza adinean daude, baina ez, eskubaloian aritzen direnean, ez dugu horren zantzurik jaso. “
- “Zarautzen euskaraz aritzeko ezer berezirik ez dutela egiten esaten digute: “natural” egiten dutela... dena den, entrenatzailearekin izandako elkarrizketan jaso genuen beste zenbait sozializazio neurriekin batera, hizkuntzaren arloan entrenatzailearen autoritateaz baliatzen direla. (...) Zarauzko egoera soziolinguistikoari egozten diote eskubaloi klubean dagoen hizkuntza praktika.”
- entrenamendu eta partidetan ez dira elkarrizketa luzeak ematen eta emozioekin eta animoekin lotutako lokuzioak nagusitzen dira. Zarautzen hizkera informal hau euskaraz da. (...) Hitanoaren erabilera Zarautzen bakarrik jaso dugu.”

Kontzeptu interesgarriak aipatzen dira: hizkuntza mudantza egiteko adinean egotea, elkarrizketa informalak, euskaraz natural egitea, entrenatzaileen autoritatea edo erreferentzialtasuna, Zarauzko egoera soziolinguistikoa, emozioekin lotutako hizkera, hitanoa...

Hizkuntza bizi-bizia, erreferentzia direnek ere modu eredugarrian erabiltzen dutena, euskaraz natural egiteko esparrua, talde giroan, taldeko kide sentiarazten zaituena... horiek ote dira gazteen artean euskararen erabilera areagotzeko gakoak? Edo gakoetako batzuk, bederen? Beharbada merezi du arreta berezia eskaintzea.

ONDORIOAK ETA LEHENTASUNAK

ONDORIOAK

Zarautz **herri euskaldunetan handiena** da. 23.200 biztanle inguru ditu, eta %74 euskaldunak dira.

Zarauzko **berezko hizkuntza** euskara da, eta naturala da euskaraz egitea. Euskarak funtzio eta maila orotan bizi-bizi egoteko aukera du Zarautzen, eta zarautzar guztion ardura da aukera hori gauzatzea, Udalarena ere bai.

Zarautzek euskararen **arnasgune** izateko baldintzak betetzen ditu.

Arnasguneak euskaldunen kontzentrazio demografiko handia duten espazio fisikoak dira. Euskaldunak gehiengoa dira eta harreman-sare euskaldunak eratzen dituzte. Hizkuntza-komunitate trinkoak dira, eta euskara dute eguneroko jarduera gehienen oinarri eta adierazpide.

Ahuldutako hizkuntzak indarberritzearen muina eta lehentasuna dira Arnasguneak. Hizkuntza batek aurrera egingo badu, **nagusi izango den eremua** behar du, eta Zarautz bezalako herri bat euskararen normalizazioan eredu izan daiteke, batez ere turistikoki erakargarri eta zerbitzu emaile diren beste udalherri batzuen aurrean.

Eta Zarautzek baldintza horiek betetzen ditu: ezagutza datuek hala frogatzen dute, irakaskuntzan D ereduak da nagusi, herriko kultur eta kirol elkarten jarduerak euskaraz dira nagusiki, aisialdi taldeek ere euskara dute eguneroko jardueren oinarri... antolatutako jarduerak euskaraz dira neurri handi batean.

Baina, Zarautz euskararentzat benetan arnagunea al da? Ezagutza datuek baietz diote, baina erabilerak? Eguneroko harremanetan, kaleko bizitzan, erosketetan, taberna eta jatetxetan, koadriletako harremanetan, gurasoen artean, parkeko jolasetan... euskaraz bizi gara zarautzarrak?

Hor dago gakoa.

Emandako datuetan ikus daiteke, Zarautzek hizkuntza gaitasunari ondo eusten diola, nahiz eta biztanleria etengabe hazten ari den.

Lehen hizkuntza euskara dutenak %55 baino ez dira, gainerakoek eskolan edo euskaltegietan ikasi dute.

Etxeko hizkuntza gaztelania da Zarauzko familia erdietan baino gehiagotan, eta horrek ere eragin handia du kaleko erabileran.

Erabilera datuak hobeak dira haur eta gazteen artean. Haurrek elkarrizketetan parte hartzen dutenean, gainera, helduen euskararen erabilera asko igotzen da.

Gazteen artean gaitasuna eta erabileraren arteko jauzia handia da.

Giro erabat euskaldunean murgildutako gazteek, ordea, modu naturalean egiten dute euskaraz, eta hizkuntza bizi-bizi eta adierazkorrean gainera (hitanoa). Helduen eredu oso garrantzitsua da, eta taldearekiko atxikimendua ere bai.

Zerbitzu Sektorearen garrantzia azpimarratzekoa da, bertan lan egiten duen herritar kopuru handiarengatik eta guztion eguneroko bizitzan duen eraginagatik.

Udalak onartu berri duen Turismoaren Plan Estrategikoak zerikusi handia izan dezake zerbitzuen sektorean euskara balioan jartzen eta bisitarien interesekin ez kontrajartzen; alderantziz, asmatu behar luke euskara bisitariarentzat erakargarri bihurtzen Zarauzko ezaugarri propio gisa.

Plangintzaldi honetako lehentasun nagusia zalantzarik gabe erabileran egongo da, eta euskaldunen aktibazioak berebiziko garrantzia izango du.

Plangintzaldi berriarekin batera jaio da Euskaraldia, euskararen erabilera areagotzeko helburua duen ariketa soziala, herritarren partaidetza eta konpromisoa eskatzen duena. Zarautzen, Euskaraldia antolatzeke batzordea osatu da eta saretze lan handia egiten ari da. Ze eragin izango duen, amaitutakoan jakingo dugu, Soziolinguistika Klusterrak egingo duen ikerketaren bidez.

LEHENTASUNAK

1.- Gazteen erabileran eragitea:

Gazteen kontsumoa, aisialdia, kirola, kultura... euskarazkoak izan daitezen bermatu behar da.

Zarautzen gazteen artean kirolak duen garrantzia ikusita, klubekin elkarlana sustatu behar litzateke egindako azterketetan ikusitako praktika onak hedatzeko.

Euskara inguru formaletatik informaletara eramatea hizkuntza prestigiatzea da, batez ere gazteenentzat.

Gazteei euskararen biziberritzearen ibilbidea ezagutaraztea, hizkuntzen arteko dinamikak, hizkuntza ekologia, euskaraz bizitzeko arrazoiak eta estrategiak... alegia, soziolinguistikari buruzko oinarritzko kontzeptuak ezagutaraztea XXI. mendean euskaldun oso izateko arrazoibidean.

2.-Euskararentzako hegemonia-guneak antolatzea:

Gaztelekua, ludoteka eta oro har gazteentzako zerbitzuak benetako arnagune funtzional bilakatzea. Horrek esan nahi du bertan antolatzen diren jarduerak (Udalak nahiz hirugarrenek antolatutakoak) euskaraz izango direla, eta horretarako hizkuntza baldintzak ezarriko direla.

Euskararen erabilera eragiten duten faktoreen artean garrantzitsuenetakoa da hitz egiteko aukerak izatea, hots, solaskide euskaldunak izatea esparru informal eta formaletan. Gure udalerrian elkarren artean topatzeko aukerak eskaintzeak ere berebiziko garrantzia izango du, beraz, eta horretarako hiri antolamenduak zeresan handia izan dezake pertsonen elkarguneak antolatzerako orduan.

3.- Kulturgintza:

Herritar guztientzako aisialdia, kirola, kultur egitasmoak euskaraz izatea berebizikoa da herritarren egunerokotasunean eta bizitzaren alderdi ludiko eta informalean duten garrantziagatik. Erakundeek herri mailako **kulturgintza aktibatze**ko neurriak hartzea eta **euskal kulturari lehentasunezko tokia eskaintzea** modu kontziente eta planifikatuan.

Era berean, hirugarrenek antolatutako jardueratan euskararen erabilera bermatzea, bai eman beharreko baimenetan, bai diru-laguntzetan, baita egindako kontratuetan ere.

4.- Guraso gazteen erabilera:

Guraso gazteak euskaldunak dira eta etxeko hizkuntza euskara izateak etorkizunerako daukan garrantzia azaldu behar zaie. Ikastetxeak aliatu izango dira eginkizun honetan. Ikastetxeak benetako murgiltzegune bihurtzea aztertu behar genuke.

5.- Sektore ekonomikoak: euskara marka positibo gisa baloratzea.

Merkataritza eta ostalaritza: euskararen balio erantsia erakutsi sektorean. Hizkuntza paisaian eragin behar da modu eraginkorrago batean, eta langileen hizkuntza gaitasuna hobetzeko erraztasunak eman.

Turismoa: Bisitariak nondik eta zertara datozen azaldu... Turismo plan estrategikoaz baliatu hizkuntzaren aldagaia ere bere egin dezaten. Turistari erakutsi herri euskalduna garela. Gune euskaldun turistikoetan ere euskararen biziraupenean duten garrantzia nabarmendu. Euskararen enbaxadore gara bisitarien aurrean. Euskarak marka gisa duen potentzialitatea landu, kultura, gastronomia, kirolak... bezala.

Zerbitzu enpresatan: aholkularitzak, finka administrazioak, profesionalak... lan munduan euskaraz egiteak balio erantsia duela ikustarazi. Bezeroei ere zerbitzua euskaraz eska dezaketela azaldu, eta horretara animatu. Udal Elkartearen eskutik.

6.- Zerbitzu publikoak:

Zerbitzu publiko guztietan eragin herritarrak euskaraz artatzeko eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Herritarren artean jarrera proaktiboa sustatu. Esan gabe doa helburu hau betetzeko Udalak lider eta eredu izan behar duela eta bere baliabideak erabili behar dituela (diru-laguntzak, kontratuak, baimenak...) euskararen erabilera sustatzeko.

7.-Hedabideak:

Euskarazko hedabideen egitekoaz hausnartu. Euskarazko hedabideak aliatu dira euskararen normalizazioaren bidean. Gertutasuna, berehalakotasuna, bertako informazioa bertakoek kontatua, hor dago tokiko hedabideen balioa eta hori euskararen alde baliatu behar dugu. Hedabideen egitekoa estrategikoa da gurea bezalako udalerrri/eskualde euskaldunean.

8.- Euskaraldia

Herritarren aktibazioari begira datozen urteetako agenda markatuko du Euskaraldia. Zarauzko Udalak bat egin du Euskaraldiarekin eta parte hartzen jarraituko du, herri batzordearekin batera.

PLAN ESTRATEGIKOA

Plana hiru helburu estrategikotan eta bi zehar-lerrotan antolatuta dago.

Helburu estrategikoak: euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikadura.

- **Euskararen jabekuntza** edo eskuratze prozesua: hizkuntzaren geroratzea helburu estrategiko guztien oinarrian dago. Azken urteetako bilakaeraren arabera, Zarautzen belaunaldi gazteetan jabekuntza prozesua bermatuta dagoela ikusi dugu. Etorkizunean ere bermatzen jarraitu behar dugu. Hiru bideak zaindu behar dira horretarako: familia bidezko transmisioa, irakaskuntza eta helduen euskalduntze-alfabetatzea.
- **Euskararen erabilera:** euskararen erabilera gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztun kopurua, euskaraz hitz egiteko gaitasuna edo erraztasuna, hitz egiteko aukerak izatea, solaskide euskaldunak izatea esparru informal (familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean) eta formalagoetan, hizkuntzarekiko atxikimendua... eta baita ere, hizkuntzaren bizitasunaz edo adierazkortasunaz dugun pertzepzioa, hau da, hizkuntzak hiztunarentzat duen balio funtzional eta sinbolikoa.
Horretarako bereziki zaindu behar dira kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, lan mundua, administrazioa, merkataritza eta ostalaritza, turismoa, zerbitzuak, hedabideak... hots, herritarren egunerokotasuna osatzen duten esparru guztiak.
- **Euskararen elikadura:** hizkuntza modu erosoan eta erraztasunez erabiltzeko elikatu egin behar da euskarazko edukien bidez, ereduak eta edukiak beharrezkoak dira hizkuntza jarduna aberasteko. Gurea bezalako herri eta eskualdean euskarazko hedabideek ekarpen handia egin dezakete.

Helburu estrategiko bakoitzak bere eragin esparruak izango ditu eta esparru bakoitzean hainbat neurri proposatuko dira.

HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESPARRUAK
EUSKARAREN JABEKUNTZA	1. Familia bidezko transmisioa 2. Irakaskuntza 3. Euskalduntze alfabetatzea
EUSKARAREN ERABILERA	4. Administrazioa 5. Gune geografiko euskaldunenak 6. Arlo sozioekonomikoa 7. Aisia eta kirola
EUSKARAREN ELIKADURA	8. Liburugintza 9. Kulturgintza 10. Publizitatea 11. Corpus, plangintza eta euskararen kalitatea 12. Hedabideak 13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

Zehar-lerroak: helburu estrategikoak aurrera eramateko behar beharrezkoak izango dira euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea ere lantzea.

- **Euskararen motibazioan** kontuan hartuko dira euskara erabiltzeko argudioak, egoerak kudeatzeko estrategiak, eredu onak zabaltzea, erakundeen lidergoa...
- **Euskararen zabalkundeak** euskara agendan jarriko du: euskararen irudia, euskarari buruzko informazioa, euskararen biziberritzeari buruzkoa, euskara kohesiorako tresna gisa ikustaraztea...

ZEHAR-LERROAK	ESPARRUAK
EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA	14. Sentsibilizazioa eta motibazioa
EUSKARAREN ZABALKUNDEA	15. Barruko proiektzioa 16. Kanpo proiektzioa

1. Familia bidezko transmisioa

- 1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea (Toki erakundeak)
- 1.2. Transmisioaren inguruko informazioa jasotzea, egungo egoera ezagutu eta orain arte burututako ekimenen arrakasta neurtzeko
- 1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea (Toki erakundeak)

2. Irakaskuntza

- 2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea
- 2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea (Toki erakundeak)

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

3. Euskalduntze eta alfabetatzea

3.3. Finantzazio sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea

3.4. Elebitasun pasiboa helduen munduan eta gutxieneko helburutzat areagotzea eta prestigiatzea

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak (Toki erakundeak)

3.9. Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea (Toki erakundeak)

4. Administrazioa

4.1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea (Toki erakundeak)

4.2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea (Toki erakundeak)

4.3. Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea (Toki erakundeak)

4.4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea (Toki erakundeak)

4.5. Administrazioen arteko elkarlana areagotzea (Toki erakundeak)

4.6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea (Toki erakundeak)

5. Gune geografiko euskaldunenak

5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea (Toki erakundeak)

5.2. Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea (Toki erakundeak)

6. Arlo sozio-ekonomikoa

6.1. Euskara planak zabaltzeko babesak eta laguntza ematen jarraitzea eta dirulaguntzen sistema etengabe hobetzea (Toki erakundeak)

6.2. Orain arte garatu diren euskara planen emaitzen gaineko azterlana egitea, egoera ezagutu eta aurrera begirako proposamenak egiteko

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.2. Begiraleen prestakuntza sendotzea

7.3. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea (Toki erakundeak)

7.4. Euskararen erabilera bultzatuko duten ekimenak antolatu eta baliabideak optimizatzea (Toki erakundeak)

7.5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, euskarak aisialdian izan dezakeen garapenari bultzada emateko

7.6. Gazteei zuzendutako modako ekimen guztietan euskara lehenestea

7.7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea (Toki erakundeak)

7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea (Toki erakundeak)

8. Liburugintza

8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea (Toki erakundeak)

9. Kulturgintza

9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea (Toki erakundeak)

9.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea (Toki erakundeak)

9.3. Euskarazko ekoizpenen zirkuituak antolatzea (Toki erakundeak)

9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea (Toki erakundeak)

10. Publizitatea

10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea (Toki erakundeak)

11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

11.1. Euskara estandarra elikatu, aberastu eta sendotzea hizkuntzaren kalitatea bermatuz: komunikagarritasuna, adierazkortasuna, zuzentasuna eta egokitasuna lantzea (Toki erakundeak)

11.3. EAeko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea (Toki erakundeak)

12. Hedabideak

12.1. Erakundeen artean euskarazko hedabideei zuzendutako laguntzen irizpideak adostu eta finkatzea (Toki erakundeak)

12.2. Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea

12.5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea

13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

13.1. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea (Toki erakundeak)

13.2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea (Toki erakundeak)

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea (Toki erakundeak)

14.2. Familia transmisioa (Toki erakundeak)

14.3. Irakaskuntza (Toki erakundeak)

14.4. Euskalduntze-alfabetatzea (Toki erakundeak)

14.5. Administrazioa (Toki erakundeak)

14.6. Arlo sozioekonomikoa (Toki erakundeak)

14.7. Aisia eta kirola (Toki erakundeak)

14.8. Liburugintza (Toki erakundeak)

14.9. Kulturgintza (Toki erakundeak)

14.10. Hedabideak eta publizitatea (Toki erakundeak)

14.11. Teknologia berriak (Toki erakundeak)

15. Barruko proiektzioa

15.1. Euskararen irudi positiboa indartzea (Toki erakundeak)

15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere (Toki erakundeak)

15.3. Erakundeen arteko elkarlanean aritzea euskararen barruko proiektzioa bultzatzeko (Toki erakundeak)

15.4. Hizkuntzarekin zein kulturarekin zerikusia duten foroetan parte-hartzea (Toki erakundeak)

15.5. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea (Toki erakundeak)

15.6. Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigiatzea (Toki erakundeak)

16. Kanpoko proiektzioa

16.6. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea

16.7. Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea (Toki erakundeak)

17. BESTELAKOAK

17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak (Toki erakundeak)